



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica



GETXO UDALERRIAN ENPRESAK SORTZEA, DIBERTSIFIKATZEA ETA SENDOTZEA BULTZATZEKO UDAL-ESPASIOAK ALDI BATERAKO LAGATZEA ARAUTZEKO OINARRIAK. GETXO SORMEN HUB 2022

Xedea	Sormen- eta kultura-sektoreko enpresa-proiektuetarako lan-espazioak lagatzea
Kokapena	Getxo Sormen Hub Urgull Zentroan dago, Urgull kaleko 4. zenbakian, Algortan (Getxon)
Lagako diren espazio-motak	<p>Guztira, 194 m²-ko azalera da, eta honako hauek dira osatzen duten espazioak:</p> <p>Lantokia (22 lanpostu)</p> <p>1. zona: (16 lanpostu) Txandakako lan-espazioa. Ez da lan egiteko toki finkorik egongo.</p> <p>2. zona. (6 lanpostu) Lan-espazio finkoa. Proiektu bakoitzak lantoki finko bat izango du, lortutako puntuen arabera esleituko dena.</p> <p>Gune komunak:</p> <p>Ofizioa: harraska, hozkailua eta mahaia (guztiantzako).</p> <p>Komunak: guztiantzako.</p> <p>Batzar-gela: 2. zonan, lagapen-hartzaileak nahieran sartzeko, aurretiaz erreserba egin ondoren.</p> <p>Armairuak: espazio itxi bat egongo da lanpostu bakoitzerako.</p>
Pertsona, enpresa edo erakunde onuradunak	<input type="checkbox"/> Enpresa-proiektu bat daukaten pertsona fisikoak, enpresak edo erakundeak.
Enpresa-proiektu motak	<input type="checkbox"/> Espazioan gauzatuko den proiektua lagako den espazio-motarentzako (bulegoarentzako) egokia izan behar da. <input type="checkbox"/> Deialdi honetan Kultura eta Sormen Industrieri nahiz sektore horien turismoari lotutako proiektuek izango dute lehentasuna.
Iraupena eta luzapenak	<input type="checkbox"/> Kontratua bi urtekoa izango da, eta urtebeteko luzapena izan dezake.
Lagapenaren araubide ekonomikoa	<input type="checkbox"/> Prezio publikoa: <ul style="list-style-type: none"> o 1. zona: Txandakako lantokiak. 40 euro + BEZa, hilabeteko o 2. zona: Lantoki finkoak. 75 euro + BEZa, hilabeteko
Eskatu beharreko lantokiak	Enpresa-proiektu bakoitzeko bi lantoki eskatu ahalko dira gehienez eta, deialdian lantoki hutsak gelditzen baldin badira, onuradun bakoitzeko lantoki-kopurua handitu ahalko da eta bakoitzak hiru eskatu ahalko ditu gehienez; hori guztia, deialdian ezarritako adjudikazio-irizpideari jarraikiz.
Hautapen-prozesua eta -irizpideak	<p>Honako balorazio-irizpide hauek hartu dira kontuan:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna. 30 puntu, gehienez ere. 2. Proiektua zuzenduko duten pertsonen gaikuntza profesionala: 20 puntu, gehienez ere. 3. Egoitza. 10 puntu, gehienez ere. 4. Proiektu berritzaileak. 10 puntu, gehienez ere. 5. Emakumeek zuzendutako proiektuak. 5 puntu, gehienez ere. 6. Kultura eta Sormen Industrieri edo horien turismoari lotutako proiektuak sustatzea. 8 puntu, gehienez ere.



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica



	<p>7. Diseinuari, musikari edo ikus-entzuzekoei lotutako proiektuak – 7 puntu, gehienez ere</p> <p>8. Garapen Agentzia baten tutoretza. 5 puntu, gehienez ere.</p> <p>9. Sortu berri diren enpresak. 5 puntu, gehienez ere.</p> <p>Balorazio egokiagoa egiteko, lantokietan sartzeari buruzko ebazpena eman aurretik aurkeztutako dokumentazioa baloratzeaz gain, eskatzaileek proiektuaren ebaluazio teknikoari buruzko elkarrizketa bat egingo dute Getxoko Udalak izendatutako langileekin.</p> <p>Espazioak eskuratu ahal izateko gutxienez 15 puntu lortu beharko dira 1. apartatuan ("Proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna"), eta 10 puntu 2. apartatuan ("Lantaldearen gaikuntza").</p> <p>Egindako balorazioaren emaitzak zehaztuko du hautatuko proiektuen kopurua.</p>
Eskariak aurkezteko epea	2022-09-02etik 2022-11-30era
Eskariak aurkeztea	Eskaerak egoitza elektronikoaren bidez egingo dira (AEB. Administrazio Elektronikoko Bulegoa, Nire kudeaketak etxetik -> Nire erregistro telematikoa -> Eskaera egin -> Ohar-eredua = Getxo Sormen Hub 2022 eskaera).
Deialdiaren oinarriak:	<ul style="list-style-type: none"><input type="checkbox"/> BAO, 167.zk<input type="checkbox"/> Eskaerak aurkezteko epea luzatzea: BAO 187.zk.<input type="checkbox"/> Getxolan. Getxo Elkartegia. Ogoño kalea 1. Areeta. Telefono-zenbakia: 94 466 01 40. <p>Bai oinarri hauek, bai eskaera-inprimakia hurrengo web orrian kontsulta daitezke: Getxo - Ekonomia Sustapena - Ekonomia Sustapena</p>
Akatsak ongitzea	Eskaria aurkeztutakoan dokumentazioa falta bada, eskatu egingo da eta aurkezteko hamar eguneko epea jarriko da.